



EGUNKARIA EGUNA IZANGO DA LARUNBATEAN

Herri askotan ospatuko da euskarazko kazetaren aldeko festa; auzipetuak epaiaren zain daude oraindik » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-02-17

VIII. URTEA 1.931. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



DATORREN URTERA ARTE

TOLOSA Bukatu dira aurtengo Inauteriak; urteroko jai giroa izan da protagonista elurra eta hotzarekin batera

INKESTA Jendeari Inauterietako egunik kuttunenarengatik galdetuta Astelenita aukeratu dute gehienek 4-5-6-7



'Alakrana' ontziaren bahiketa ere gogoratu dute Inauterietan . A. IMAZ

Jai giroarekin bat eginez Zelatungo erromeria ere izan da Tolosan eta oraindik urrutigotik, Danimarkatik, Lego jostailu ospetsuak ere gerturatu dira gurera . I. GARCIA - I. TERRADILLOS



K Komikia

GORKA SALABERRIA



«Jadanik hasi gara datorren urteko Inauteriez hizketan»

BEGOÑA LIZARRIBAR » Inauterizalea

Tolosa » Urte guztian zehar igandero-igandero mendira joaten dira; Inauterietan karroza ateratzen dute koadrilan.

ASIER IMAZ

Karrozen azken itzuliri ekin aurretik, Begoña Lizarribarren (Txararama, 1951) koadrila prestaketa lanak egiten ari zen atzo goizean San Frantzisko pasealekuaren inguruan. Begoña Lizarribar duela 40 urte ezkondu zen Tolosarekin. «Betidanik» gozatu izan du Inauterietan.

Zer dira zuretzat Tolosako Inauteriak?

Izugarrizko festak. Betidanik asko gustatu izan zaizkit. Oso herrikoiak dira, gainera.

Zer bilatzen duzu egun hauetan?

Aurreneko gauza barre egitea, denok dibertitzea. Koadrila beti mendian ibiltzen gara, igandero-igandero, eta gero Inauterietan zerbait eginaz ateratzea gustatzen



Begoña Lizarribar, eskuinean, eta bere koadrila atzo goizean San Frantzisko kalean. A. IMAZ

zaigu, barre egiteko helburuarekin.

Karrozarekin irteten al zarete beti?

Hain handiekin duela bost edo sei urte hasi ginen. Lehen ere irteten ginen baina beti txikiagoekin.

Bat esatekotan...

Denak desberdinak izan dira, baina bat aukeratzen hasita, zezen plazarena egin genuenean asko

gozatu genuen. Lehenik zezenketa moduko bat egin genuen eta gero, astelehenean, herri kirol jaialdia. Oso ondo pasa genuelako oroitzapen zoragarriak utzi zizkigun karroza hark. Aurten berriz serioago gabiltza, musika gutxiarekin, dantzarik gabe... baina ondo. Atzo (herenegun) berriz, txaranga batez ateragin eta izugarri gozatu genuen.

Beste karrozak ikusteko aukerarik izan al duzu?

Egiten aritu garen bitartean. Aktuazioren bat ere ikusi dut.

Zer moduz ibili zarete Ferialekuan?

Hori da politena. Han jendearekin hartu-eman handia egiten duzu; gu zaharretakoak gara eta denak ezagutzen amaitzen duzu. Horregatik oso ongi pasatzen

duzu eta horrek harrapatu egiten zaitu. Orduan hasten dira Inauteriak; Eguberrien bueltan hasten zara Inauteriak bizitzen.

Aurten ikaslez atera zarete?

Gure garaiko eskola bat egin dugu, maisu eta guzti. Gure denboran bizitako eskola bat egin nahi genuen, espainiar bandera eta *Cara al Sol*-ekin baina ez ginen ausartu. Nahikoa da bat etortzea eta zerbait esatea. Orduan ez genuen ondo pasako.

Tximeneta eta guzti atera zarete, hotzari aurre egiteko?

Garai bateko eskoletan horrela berotzen ziren gelak. Egia esan oso ongi etorri zaigu, eskuak berotzeko besterik ez bada ere.

Nola sentitzen zara karrozan zozazenean eta jendea behetik begira duzunean?

Batzutan lotsa ematen du. Horregatik, lehenik hamaiketakoak egiten dugu eta orduan pixka bat berotu egiten gara.

Bihar (gaur) berriz, akabo.

Ondorioak ateratzen ditugu. Zer moduz joan den eta datorren urtean zer egin dezakegun pentsatzen dugu.

Bihar bertan, beraz, hurrengo urtera begira jarriko zarete.

Atzo (herenegun) hasi ginen hizketan horren inguruan. Datorren urtekoaz aurretik hitz egiten dugu, ondoren denbora baterako alde batera uzten dugu gaia.

Egunkaria Eguna ospatzeko ekitaldi ugari, larunbatean

Tolosa » Herri askotan egingo dute euskarazko kazetaren aldeko jaia; gurean arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

ERREDAKZIOA

Egunkaria Eguna izango da larunbat honetan, hilak 20. Herri askotan izango dira ekitaldiak eta gurean Tolosan izango da festa.

Ekitaldi guztiak arratsaldean izango dira, 18:00etatik aurrera, eta besteren artean buruhandiak eta dultzaineroak, bertsolariak, O+Hatz taldea, Mulanboren kalejira, Bonberenea txaranga, Udaberri eta Alurr taldeetako dantzarien emanaldia, Konponezinak koadri-la... izango dira. Era berean, Martxelo Otamendi ere izango da festa eta hitzaldia eskainiko du.



Euskal Herrian Euskarazek Villabonan egindako elkarretaratzea. N. LATABURU

Epaiaren zain

Gogoratu behar da era berean, 'Egunkaria auzia'ko epaiketaren zain daudela auzipetuak. Epaiketaren abenduaren 15ean hasi zen Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamen-

di eta Xabier Oleagaren lekukotekin.

Auzipetuen, bi aldeetako lekukoena eta perituen deklarazioen ondotikotsailaren leian amaitu zen epaiketa eta auzipetuak orain epaiaren zain daude.

Asteasutik Salvadara mendi irteera

ERREDAKZIOA

Asteasuko Sagain Mendi Taldeak bi irteera antolatu ditu datozen asteburuetarako. Igandean, hilak 21, Salvadako mendikatera joango dira eta datorrenerako, hilak 28, ski alpinoko irteera antolatu dute.

Igandean, hortaz, Orduñara (Bizkaia) joango dira. Egun osoko irteera izango da eta honako ibilbidea egingo dute: Lendoñoigita-Tologorri-Txarlazo-La fuente de la choza. Bost ordu inguruko ibilbidea izango da eta erdi mailako zailtasuna duela aurreratu dute. Autobusa 08:00etan irtengo da udal txete aurretik eta arratsaldean bueltatuko dira. 12 urtetik beherakoek bost euro ordaindu beharko dituzte eta gorakoek, aldiz, 10 euro. Kiroldegian eman daiteke izena. Azken eguna bihar izango da.

Hilaren 28ko irteera berri z Gourettera izango da. Familia guz-

tiari zuzendutako irteera dela argitu dute, nahiz eta bereziki 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako den. Izena kiroldegian eman daiteke hilaren 24a baino lehen.

Irteeran parte hartu nahi dutenek 18 urtetik beherakoak badira 45 euro ordaindu beharko dituzte eta gorakoek, aldiz, 52 euro.

Diru horrekin bidaia eta forfaita ordainduko dituzte eta izena ematerakoan 20 euro rurreratu behar dira. 18 urtetik beherakoek gurasoen baimena eman beharko dute orri batean, udaletxeko errolda ziurtagiria eta NANA, pasaportea edo familia liburuaren kopia bat.

Irteera orduak hauek izango dira: Asteasun, udaletxean, 05:30ean, Villabonan, kiroldegian, 05:45ean eta 20:00ak inguru itzuliko dira.

Informazio gehiagorako www.sagain.org edo 630 46 6 833.

Aurrera jarraitzen du preso enborrokaldiak

ERREDAKZIOA

Euskal presoek hasitako borrokaldiak aurrera jarraitzen du. Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua argitutakoaren arabera, egoera hau dela eta, Aiztondo bailako euskal presoak, azaroz geroztik bisean bisekorik gabe geratu dira. «Egoera oso larria da, euren eskubidea baita aurrez aurreko

edukitzea» nabarmendu dute AAMtik.

Datozen mobilizazioak hauek izango dira: hilaren 26an, hileko azken ostirala izaki, elkarretaratzeak eta hilaren 27an Tolosako epaitegiaren aurrean bilduko dira, senide eta lagunak presoak bisitatzerantz joan direnean katxeatuak izaten direla salatzen.

Zesta punta partidak asteburuan Tolosan

ERREDAKZIOA

Zesta puntako partidak ikusteko aukera izango da asteburuan. Ostiralean 19:30etik aurrera Tolosako Beotibarren infantilek jokatu dute eta hauek dira taldeak: Beoti-

bar 3-Zumaia 4, Beotibar 2-Zumaia 5, Beotibar 1-Zumaia 6. Nagusiek, aldiz, igandean jokatu dute Uzturpe frontoian 11:00etatik aurrera. Beotibar 1 eta Gasteiz Jai Alai taldeak ariko dira.



Titinen eta Irujoren arteko lehia

TOLOSA » Aspe pilota enpresak jaialdia antolatu zuen atzo Beotibar pilotalekuan. Partida nagusian Irujo-Merino bikoteak Titin III.a-Eulateren aurka jokatu zuten. Gorriek, Irujo-Merino, irabazi zuten partida bo-

rrokatua, 22-20ko emaitzarekin. Jende ugari elkartu zen pilotalekuan eta bi aurrelariak eskaini zuten ikuskizuna gogotik txalotu zuten. Titin III.a izan zen tanto politenak egin zituen pilotaria. A. IMAZ

Hilberriak

MARIA LUISA AZPITARTE LARRAÑAGA

(Roque Agirretxeren alarguna)

Atzo hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

«Golan bego»

AGUR AMA,

Seme-alabak, bilobak, laguntzaileak eta gainerako ahaideek, haren arimaren alde otziz bat eskatzen dugu eta arren etor zaitezte! GAUR ASTEAKZENA, arratsaldeko 19:00ETAN, ZARAUZKO ANDRA MARI ZERURATZEA-SANTA MARIA LA REAL parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



ZARAUZK
2010eko otsailaren 17an

Oharra: hilberria Zarauzko Beiletokian aurkitzen da gaur, eguerdiko 13:00ak arte. Gorpuz Laguntza Familia artean izango da 16:00etan Zarauzko Hilerrian.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle



Txikitozaleek Montetxe taberna jarri zuten martxan ardoa sustatzeko. I. GARCIA



Bob esponja eta bere lagunek jatetxea jarri zuten San Frantziskon. I. GARCIA



Armairutik zein aterako begira aritu zen jendea. A. IMAZ

Amaitu dira aurtengoak ere. Gaurko egunean Tolosa ia hutsik egoten da eta taberna zein denda gehienak itxita. Festaren ajea nagusitzen da eta pasatako jai egunen errebasoa egin eta gero, hurrengo urteko Inauterien zain geratzen da Tolosa.

Gutxiago falta da datorren urterako

ERREDAKZIOA

Nondik ateratzen du jendeak indarra? Inauteriak ostegunean hasi ziren eta atzo goizean karrozak oraindik errepidean zeuden, berriro ere egun berri bati ekiteko prest.

Askok, Zaldunitako emanaldi berdinak eskaini zituzten San Frantziskoko eta Rondillako San-

bodromoan. Mozorroak, garbitu ondoren, berriro soinera. Ibilbidea berbera... baina jendea ez da nazkatzen. Urteko egunik garrantzitsuenak dira askorentzat. Beste herri batzuetan Inauterietan gehien bat gazteak mozorrotzen dira. Tolosan helduen parte hartzea izugarria da. Ez mozorrotzen direlako bakarrik, jokatzan duten

papera ikusgarria delako: dantzaz, mikrofonoa hartuta, jaiak jarritzen... Urteko beste egun guztietan ikusiz gero, norik esango luke Inauterietan ikusitako hura, bera denik?.

Denek hitz egiten dute jai berezi hauen inguruan eta denek dute zeresana. Zergatik? Behar bada, egun hauetan gertatzen denak ez

duelako loturarik egutegiko beste zenbaki horiekin. Tolosara gerturatzan direnek hori dakitela dirudi: 359 aldiz zerbait gordetzen baldin baduzu, 6 egun iritelen dira.

Gaur amaitu dira Inauteriak

Kalean ibiliz gero jakituria handia biltzen da egun hauetan. Gaez, zer esanik ez. Horretarako azken

eguna atzokoa izan zen. Beraz atzo zer? Eguraldi hobea; karrozak goizean goiz kalean jaiak sortuz; jendea gustura hauei begira; esamesak han eta hemen; txarangak ohi bezala bihotza saltoka jarritz; xexenak zezen-plazan; parrandaren jarrapena kalean; sardina; txosnak eta tabernak... eta gaur, hurrengo urteko Inauterien zain.



Karrozekin ateratzen direnek beraien dantza-ikusizunak egin ohi dituzte. ASIER IMAZ





Atzo egindako eguraldi haizetsua ondo baliatu zuten haize-errotek. I. GARCIA



Antzezenik ez zen falta atzokoan ere. I. GARCIA



Auto-txoekak barratik aldegin zuten festaz gozatzera. I. TERRADILLOS



Musika egiteko edozer erabiltzea zilegi da Inauterietan. I. GARCIA



Txarangek, beti bezala, kaleak alaitsu zituzten. I. GARCIA



Pirata izatea odolean eramaten da zenbait familian. I. GARCIA


@ Argazkiak. HITZak aurtengo Inauterietan ateratzen dituzuen argazkiak jaso nahi ditu. Bidaltzen dituzuen argazki guztiekin bilduma osatuko dugu eta webgurean izango dituzue ikusgai. Bidali argazkiak tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora: www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Eskaintza; alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo

konpromisorik gabe honako telefono zenbakietara: 638-94 46 04 (Gurutze) edo 695-70 82 71 (Belen).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Apain-apain mozorrotuta





I Inkesta

1. Zer moduz joan dira aurtengo Inauteriak? 2. Egunez egun zeintzuk izan dira zure mozorroak? 3. Zein da zuretzat Inauterietako egun kuttuna?



«Urtetik urtera hobeto pasatzen dut»

Kristina Urkola

1. Oso ondo, primeran pasa dut. Azken urteetan, gainera, urtetik urtera hobeto pasatzen ari naiz, izan ere, haurrak handitzen doaz, eta lasaigo moldatzen gara.
2. Bi mozorro jantzi ditut Inauterietan. Igandean eta asteartean Bob esponjaz, eta astelehenean errege-jantzi nintzen.
3. Nik astelehena aukeratuko nuke.



«Igandea da egunik jendetsuena eta politena»

Eider Tolosa

1. Ondo, oso ondo. Hotz handia egin du, baina moldatu gara. Haurrekin ibili gara, beraz, lasai-lasai egon gara, beste giro bat izan dugu, desberdina.
2. Igandean eta asteartean haurtoz jantzi gara, eta astelehenean, berriz, ijituz.
3. Igandea aukeratuko nuke. Jendetsuena da, eta oso polita. Asteartearen ere bai.



«Familiarekin egoteko Astelenita da hoberena»

Ramon Iglesias

1. Ederki. Zaldunitan hotz handia egiten zuen, eta geldirik egoteko gaizki, baina, bestela oso ondo.
2. Munilla Donostiako gotzainaren inguruan firmak biltzen egon ginen, eta pirataz ere ateratzen.
3. Familiarekin egoteko astelehena hobera da, eta lagunekin egoteko, berriz, asteartea hobeto. Bestela, Ostegun Gizona ere asko gustatzen zait.



«Oso giro polita egon da aurtengo Inauterietan»

Juanjo Otegi

1. Oso ondo. Oso giro polita egon da. Eguraldiarena kenduta, hau da, hotz handia egin duela. Bestela, dena oso ondo.
2. Igandean eta asteartean indiarrez mozorrotu naiz, eta astelehenean, berriz, hippyz.
3. Eguraldia kontuan hartuta Astelenita aukeratuko nuke. Gainera, auto batekin ateratzen ginen lagunak eta oso ondo pasa genuen.



«Astelenita izan da egunik hoberena»

Andoni Aranzabal

1. Primeran. Hori bai, hotz handia egin du, baina euririk ez du egin, beraz, ez da hain txarra izan eguraldiarena.
2. Hippyz mozorrotuta ateratzen astelehenean, eta Zaldunitan eta Asteartitan suge-sorgintzaile bezala.
3. Nik Astelenita aukeratuko nuke. Giro oso polita egon zen, eta primeran pasa genuen.



«Egunez bizitu ditut aurtengo Inauteriak»

Arantzazu Balerdi

1. Primeran pasatu dut. Egia esan, gauez parranda gutxi egin dut. Aurtun egunez egon naiz gehiago. Uste dut zahartzen ari naizela.
2. Tolosako hondartzaz, hau da, *Tolosa Beach* igandean eta asteartean eta astelehenean pailloz mozorrotu naiz.
3. Igandea, astelehena eta asteartea. Hiru horiek aukeratuko nituzke.



«Egunez nahiz gauez, bikain pasa dut»

Susana Lopez de Murillas

1. Oso ondo pasatu dut aurtun, inoiz baino hobeto. Gainera, egunez nahiz gauez bietan ere ederki pasa dut.
2. Pantoz jantzita ateratzen igandean eta asteartean, eta astelehenean, berriz, *Betty itsuziaz* mozorrotu naiz.
3. Niretzako, zalantzarik gabe, Astelenita izan da aurtengo egunik hoberena.



«Ezin egun bat aukeratu; denak izan dira oso onak»

Anizeto Agirregomezorta

1. Kategorian. Oso oso ondo. Zoragarriak izan dira aurtengo Inauteriak.
2. Txikiteroz jantzita irten gara igandean eta asteartean. Nolabait herrian oso berezi izan diren ostalbatzuei omenaldi modukoa izan da. Astelenitan soinu-jotzaile konpartzarekin ateratzen nintzen.
3. Ez nuke bat aukeratu. Guztiak izan dira oso onak.



«Urtero bezala, primeran pasa dut Inauterietan»

Joxe Migel Agirregomezorta

1. Oso ondo pasa dut. Egia esan, urtero bezala, beti pasatzen baitut primeran Inauterietan.
2. Zaldunita egunean eta Asteartean zerbitzariz jantzita ateratzen naiz, eta Astelenitan, berriz, konpartsa ateratzen naiz musika tresnarekin.
3. Inauterietatik ezin dut egun bat aukeratu, egun guztietan oso ondo pasa baitut.



«Ohi bezala, primeran pasa dut aurtun ere»

Felipe Agirrebarrutigoikoa

1. Oso ondo. Beti bezala, Inauterietan ezin da besterik esan, eta aurtun ere primeran pasa dut.
2. Zaldunita egunean eta Asteartean zerbitzariz jantzita ateratzen naiz, eta Astelenitan, berriz, Munilla Donostiako gotzainaren aldeko bezala irten naiz.
3. Ez dakit egun bat aukeratu. Guztiak egun oso onak izan dira niretzat.



«Aurtun inoiz baino jende gehiagok hartu du parte»

Joxe Mari Barriola

1. Oso biziak izan dira. Gainera, egin duen eguraldiarekin indar handiagoarekin ateratzen gara denak uste dut. Bestalde, aurtun jende askok parte hartu duela ikusi dut, inoiz baino gehiago.
2. «Compro oro» kartelarekin, txalapartariz, surflariz eta Zelatungo erromeriaz.
3. Guztietan gehien gustatzen zaidan ueña Diana da.



«Zaldunita eguna gustatu zait gehien aurtun»

Oihana Olano

1. Oso ondo pasa dut. Primeran, asko dibertitu naiz.
2. Hiru mozorro desberdin jantzi ditut: Zaldunita egunean hippyz jantzi nintzen, estralurtarrez Astelenita egunean, eta Asteartean, berriz, mendizalez jantzita irten naiz.
3. Zaldunita eguna izan da niretzat politena. Batez ere, hippy jantziarengatik.



«Oso ideia onak ikusi ditut aurtun mozorroetan»

Pello Olano

1. Oso ongi. Egia esan, giroak laguntzen badu ez da beste ezer behar. Aurtun, gainera, oso ideia onak ikusi ditut mozorroetan. Askok gustatu zaizkit aurtengo Inauteriak.
2. Heavyz ateratzen naiz Zaldunitan, estralurtarrez Astelenitan eta mendizalez Asteartean.
3. Zaldunita, giro polita egon baita egunez nahiz gauez.



«Asteartita da politena herritarrek egoten baitira»

Aitor Mendia

1. Oso ondo. Beti bezala. Txikitatik bizi izan ditut Inauteriak, eta urtero bikain pasatzen dut.
2. Zaldunita egunean indiarrez jantzita ateratzen naiz, Astelenitan, urteroko moduan, neskaz jantzita, eta Asteartean, berriz, mendizalez.
3. Asteartita aukeratu dut. Eguna gustatzen zait, eta gaua ere, herriko jendea egoten delako.

